Euskararen ahoskeraren estandarizazioa: aldakortasuna eta artifizialtasuna hiztunen artean

Estandarización de la pronunciación del euskera: variación y artificialidad entre los hablantes

Standardisation de la prononciation du basque : variation et artificialité entre les locuteurs

Standardisation of Basque Pronunciation: Variation and Artificiality among Speakers

URRETA ELIZEGI, Irati
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
irati.urreta@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-3181-4969

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.348

Artikulu honetan agertzen diren eduki eta datuak *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen* izenburupean 2025eko urtarrilean EHUn aurkeztutako doktorego-tesiaren zati dira. Lan hura Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza Aurreko Programako laguntzaren (2020-2024) babesarekin egin zen. Eskerrak eman nahiko nizkieke tesi zuzendari izandako Oroitz Jauregi eta Miren Lourdes Oñederrari, ikerlana aurrera eramateko emandako laguntzagatik. Halaber, eskerrak lanean parte hartu duten hiztunei.

Jasotze-data: 2025-10-24
Behin-behineko jasotze-data: 2026-05-12
Behin betiko jasotze-data: 2026-06-04

Lan honen helburua da euskal hiztunek zenbait ahoskeraren gainean dituzten uste eta iritziek hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunean duten eragina aztertzea. Horretarako, Ikaztegietako (Gipuzkoa) eta Baigorriko (Nafarroa Beherea) hiztun batzuen zenbait hizkera-mailatako ebakerak eta jarrerak bildu dira. Emaitzek erakusten dute

artifizialtasun-sentipena nagusitzen dela hiztunentzat ohikoak ez diren ahoskerak erabiltzean, eta horrek maiz hizkera-mailaren araberako aldakortasuna mugatu eta ahoskeraren estandarizazioa zailtzen duela.

Gako-hitzak: ahoskera, estandarizazioa, hizkera-mailak, aldakortasuna, artifizialtasuna.

El objetivo de este artículo es analizar la influencia de las creencias y opiniones de los hablantes de euskera sobre determinadas pronunciaciones y su impacto en la variación según el registro de habla. Para ello, se han recogido muestras de pronunciación y actitudes de hablantes de Ikaztegieta (Gipuzkoa) y Baigorri (Baja Navarra) en distintos registros. Los resultados muestran que entre los hablantes predomina una percepción de artificialidad al emplear pronunciaciones que no les son habituales, lo que a menudo limita la variación según el registro y dificulta su estandarización.

Palabras clave: pronunciación, estandarización, registros de habla, variación, artificialidad.

L'objectif de cet article est d'examiner l'influence des croyances et des opinions des locuteurs bascophones à l'égard de certaines prononciations et leur impact sur la variation selon le registre de langue. À cette fin, des productions et des données attitudinales ont été recueillies auprès de locuteurs d'Ikaztegieta (Gipuzkoa) et de Baigorri (Basse-Navarre) dans différents registres. Les résultats révèlent un sentiment d'artificialité face à des prononciations peu familières, limitant la variation selon le registre et entravant leur standardisation.

Mots-clés : prononciation, standardisation, registres de langue, variation, artificialité.

The aim of this article is to examine the influence of Basque speakers' beliefs and opinions regarding certain pronunciations and how these can influence variation across speech registers. To this end, data were collected on the productions and attitudes of several speakers from Ikaztegieta (Gipuzkoa) and Baigorri (Lower Navarre) across different registers. The results show that a sense of artificiality predominates when speakers use pronunciations that are not familiar to them, often limiting register-based variation and hindering the standardization of pronunciation.

Keywords: pronunciation, standardisation, speech registers, variation, artificiality.

URRETA ELIZEGI, Irati (2026) «Standardisation of Basque pronunciation: variation and artificiality among speakers», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 71-104.

1 Sarrera
2 Estandarizazioa: idatzia eta ahoskera
2.1 Estandarizazio-prozesuaren urratsak
2.1.1 Estandarrerako aldaera aukeratzea
2.1.2 Kodetzea
2.1.3 Aldakortasun funtzionala eratzea
2.1.4 Hiztun-komunitateak aldaera estandarra onartzea
2.2 Idatzia, aldaera estandarraren lehentasun
3 Euskararen ahoskeraren estandarizazioa
4 Corpusa eta metodologia
4.1 Hiztunen profila
4.1.1 Ardatz dialektala
4.1.2 Euskara ikasteko modua
4.1.3 Adina
4.2 Datu-bilketa eta -azterketa
4.2.1 Hizkera-maila arduragabeko jarduna
4.2.2 Hizkera-maila zainduko jarduna
4.2.3 Galdetegia
5 Hiztunen jarrera eta usteak: artifizialtasun-sentipena
5.1 Ikaztegietako hiztunen ahoskerak
5.1.1 Datuak
5.1.2 Galdetegietako iritziak
5.2 Baigorriko hiztunen ahoskerak
5.2.1 Datuak
5.2.2 Galdetegietako iritziak
6 Ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Estandarizazioa hizkuntzen biziberritze- edo normalizazio-prozesuan aurrera egiteko alderdi esanguratsua da; izan ere, estandarizazioak hiztunei baliabideak ematen dizkie hizkuntza lehen erabiltzen ez zen esparruetan erabiltzeko. Erabilera-esparru berri horiek, oro har, formalak izan ohi dira; besteak beste, irakaskuntza, hedabideak eta administrazioa. Euskararen kasuan ere euskara batuak lagundu zuen hizkuntzaren izaera soziologiko murriztua aldatzen. Euskara mende luzeetan etxeko eta lagunarteko erabileretara mugatua izan zen, egoera formaletan estandarra aski finkatua zuten beste hizkuntza batzuk erabili ziren: gaztelania eta frantsesa, batez ere, garai berrienetan. Hori horrela, euskaraz ez da, oro har, garatu hizkera-mailen araberako hizkuntza-aldakortasunik edota, izatekotan, urria izan da[1]. Berariaz antolatu beharrekoa litzateke aldakortasun hori, eta estandarizazioak leku esanguratsua betetzen du horretan.

Estandarizazio-prozesuan idatziak izan ohi du lehentasuna; ahozkoaren estandarizazioa, etortzekotan ere, geroago etorri ohi da (J. Milroy eta L. Milroy 1999 [1985]: 55). Hala gertatu zen euskaraz ere. 1968an idatzi estandarrerako oinarriak finkatu ziren (Euskaltzaindia 1968), baina 1998ra arte ez zen ahozkorako ezer proposatu. Azken urte horretan argitaratu zuen Euskaltzaindiak (1998) *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* araua (EBAZ hemendik aurrera). Idatziaren lehentasun horrek ekarri du, neurri batean, gaur egun, idatzi estandarra nahiko finkatua eta euskal hiztunen artean, oro har, onartua egotea, baina ahozko estandarrean oraindik bide aski luzea geratzea egiteko. Esan daiteke ez dela guztiz lortu estandarrerako ahoskera-arauak hiztun-komunitatean zabaltzea eta onartzea eta, beraz, hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna eratzean ere gutxi aurreratu da (Oñederra 2017: 351-352).

Hiztunek artifizialtasun-sentipena izan ohi dute zenbaitetan estandarrerako proposatutako aukerak (ahoskerak, kasu honetan) erabiltzean, erabiltzen ohituta ez dauden ahoskerak izaten baitira batzuetan aldaera

[1] Baleudeke zenbait salbuespen; besteak beste, Elizak erabilitako aldaera batzuk edota bertsolarien jarduna, horien bidez euskarak maila jasoetako eredu bat garatu baitzuen.

estandarrerako proposatzen direnak (Moreno Cabrera 2009). Artifizialtasun-sentipen horrek zaildu egiten du, hein batean, ahozko aldaera estandarra onartzea (Darquennes 2011: 555) eta, era berean, hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna baldintza lezake.

Artikulu honetan, Ikaztegieta (Gipuzkoa) eta Baigorriko (Nafarroa Beherea) zenbait euskal hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko ahoskerak aztertu dira eta hiztunek zenbait ahoskeraren gainean dituzten uste eta iritziak ere bildu dira. Lan hau lehen hurbilketa gisa aurkezten da, aurrera begira, euskal hiztun gehiagoren portaeraren isla orokorrago bat aztertzeko abiapuntu bezala. Batez ere, hiztunen jarrera eta usteetan jarri da arreta, uste horiek eragina izan dezaketelako euren ahoskera hautuetan (Beinhoff 2013; Cestero eta Paredes 2018; Garrett 2010; Rindal 2013). Hain zuzen ere, helburu nagusia da erakustea aztertutako hiztunen kasuan zenbait ahoskeraren gainean duten artifizialtasun- edo arroztasun-sentipenak eragina duela hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunean. Euskaltzaindiak EBAZ araua atera zuela mende laurdena baino gehixeago dela kontuan izanik, garai egokia izan daiteke hiztunek EBAZ-ekin duten harremana, bere ezagutza eta onarpena, besteak beste, nolakoa den aztertzeko. Alderdi horien berri izatea baliagarri izan liteke etorkizunean euskararen estandarizazioaren erronkei buruzko ikerketa zabalagoetarako oinarriak jartzeko.

2 **Estandarizazioa: idatzia eta ahoskera**

Estandarizazioa hizkuntza bateko aldaera bat hiztun-komunitatean arau supradialektal (dialektoez gaindikoa) gisa eratzeko eta onartzeko prozesua da. Horrek aldaera estandarra norma linguistiko batekin lotzen du; hau da, aldaera estandarra hiztun-talde batek onartutako arau-multzo batekin jartzen du harremanetan (Ferguson 1996 [1988]: 189). Nolabait esan, hizkuntzak berezkoa duen banatzeko edo bereizteko joeraren aurrean, estandarizazioa hizkuntza batzeko bidea litzateke.

Estandarizazio-prozesuaren emaitza aldaera estandarra izaten da. Auerrek (2005: 2) dioena ekarrita, hiztun-komunitate baten hizkera komu-

na izaten da aldaera hori, eskolan irakasten dena, eremu publikoetan erabiltzekoa eta, bereziki, idatzirako eta testuinguru formaletarako eratzen dena. Valverdúk (1986: 319-320) ere irakaskuntzan, hedabideetan, administrazioan eta, oro har, esparru publikoetan erabiltzen den aldaera gisa azaltzen du estandarra[2].

2.1 **Estandarizazio-prozesuaren urratsak**

Aldaera estandarra eratzeko prozesuan hainbat urrats gertatzen dira. Haugenek (1966: 933) lau aipatzen ditu. Lau horiek lirateke, oro har, estandarizazio-prozesu guztietan gertatzen direnak, nahiz eta ez duten zertan beti hurrenkera berean gertatu:

1. Aldaera aukeratzea (*selection*)
2. Kodetzea (*codification*)
3. Aldakortasun funtzionala eratzea (*elaboration of function*)
4. Hiztun-komunitateak aldaera estandarra onartzea (*acceptance by the community*)[3]

---

[2] Gaur egungo euskara batuaren (aldaera estandarraren) erabilera-esparru eta funtzioak zabalagoak direla gogoan izatea komeni da, besteak beste, euskal hiztun askok (etxean edo etxetik kanpo) bereganatu duten aldaera bakarra euskara batua baita eta, beraz, lagunarteko egoeretan ere hori darabilte. Euskara batuaren egungo erronketako bat litzateke aldaera estandarraren barnean ere hizkera-mailak (jasoa, lagunartekoa, etab.) zehaztea eta euskalkien erabilerarekin uztartzea.

[3] Adierazi bezala, urrats hauek ez dute zertan artikuluan aipaturiko hurrenkeran gertatu; hau da, ez dira beti bat amaitzean hasten hurrengoak, batzuk batera gerta daitezke zenbaitetan. Esate baterako, hiztun-komunitatearen onarpenak estandarizazio-prozesuaren hasierako garaietan (aldaeraren aukeraketan bertan, adibidez) jada indarra izan dezake eta estandarizazio-prozesu osoan zehar iraun, hiztunen erantzuna (onarpena edo ez) beti egongo baita presente (J. Milroy eta L. Milroy 1999 [1985]: 22-23).

2.1.1 *Estandarrerako aldaera aukeratzea*

Aipatu dugun lehendabiziko urratsa estandarrerako aldaera (edo aldaerak) aukeratzearena da. Aldaera baten edo batzuen alde egiterakoan, hainbat faktorek eragiten dute, arrazoi linguistikoak baino gehiago izan ohi dira sozialak.

Askotan prestigioa izaten da gakoa: prestigio handiena duten aldaera edo formak hartzen dira estandarrerako oinarritzat. Prestigioa hainbat alderdirekin egon daiteke lotua, ekonomiarekin, politikarekin edo gizarte indarrarekin, besteak beste (Thomas 2010: 8). Esate baterako, frantsesaren estandarizazioan, Parisko aldaeraren alde egin zen, hura baitzen, identitate nazionalaren irudi izateaz gain, prestigio handiena zuena (Lodge 1993: 104). Gaztelaniaren kasuan ere, prestigio handia zuelako, Toledoko aldaera hartu zen batez ere oinarritzat estandarra eraikitzeko (Thomas 2010: 24). Zer esanik ez ingelesaren kasuan: Ingalaterra erdialdeko aldaeraren alde egin izana, hein batean behintzat, bere prestigio eta hedapenari zor zaio; ez da ahaztu behar, halaber, erdigunean zegoenez, eremu guztietako hiztunentzat, oro har, ulertzeko errazagoa zela (Crowley 1989: 101).

Euskara batuaren eraketara begira jarrita, erdialdeko hizkera hartu zen nagusiki oinarritzat, Gipuzkoan, Lapurdiko mendebaldean eta Nafarroako ipar-mendebaldean egiten dena. Hainbat izan ziren arrazoiak haren alde egiteko: Euskal Herriko erdigunean zegoenez, errazagoa zen euskaldun guztientzat ulerterraza eta ikasterraza izatea, mendebaldeko euskararekin batera, hiztun-kopuru handieneko hizkera zen eta abar. Halaber, tartean, prestigioaren indarra zegoen, ospea baitzuen; XVIII. mendeaz geroztik, euskara giputza erabili zuten, besteren artean, elizgizonek, bertsolariek eta idazleek. Hego Euskal Herrian, batez ere, Tolosako hizkera jotzen zen euskara ontzat (Zuazo 2014: 71)[4].

[4] Euskara baturako eredua erdialdeko euskalkian oinarritzearen arrazoien berri zehatzago izateko, ikus, besteren artean, Zuazo (2006 [2005], 2008).

2.1.2 *Kodetzea*

Estandarizazioaren beste urrats bat kodetzea da. Haugenen (1966: 931) hitzetan, kodetzea hizkuntza forman (egitura linguistikoan, hau da, gramatikan, ahoskeran eta hiztegian, besteak beste) ahalik eta aldakortasun gutxiena izateko helburuarekin egiten da: «codification may be defined as minimal variation in form» (Haugen 1966: 931). Urrats horretan araugintzak (preskriptibotasunak) leku garrantzitsua izaten du, hizkuntzaren hainbat alderdi aztertzen dira eta aldaera estandarrerako forma egokienak zein diren erabakitzen da. Lan hori gehienetan hizkuntza-akademiek egiten dute, Euskaltzaindiak euskararen kasuan.

Sarreran aurreratu gisan, idatzia izan ohi da aldaera estandarraren lehentasun (Auer 2005: 13-14). Zehazki, ortografia izan ohi da, oro har, lehendabizi arautzen dena, hizkuntzaren beste alderdietan (gramatika, hiztegia eta ahoskera) baino aldakortasun txikiagoa topatu ohi baita: «Standardisation of the written language is easiest to demonstrate with reference to ortography: spelling is the most uniform level of language use» (J. Milroy eta L. Milroy 1999 [1985]: 56). Ortografiaren ondoren, morfologia eta sintaxiaren arautzea etorri ohi da eta, azkenik, hiztegia kodetu ohi da, zeina ia ezinezkoa den guztiz arautzea, lexikoan aldakortasun handia izan ohi baita (Penny 2004: 202). Ahozkoaren arautzea, berriz, etortzekotan ere, geroago etorri ohi da, oro har (2.2 atala).

2.1.3 *Aldakortasun funtzionala eratzea*

Kodetzearen bidez forma hartzen doan heinean, estandarraren oinarrirako aukeratutako aldaerak legitimotasuna lortzen du hiztunen artean eta esparru berrietara zabaltzen hasten da; hori litzateke behintzat helburua, lortu beharrekoa: «Establecidas las normas de fijación normativa, hay que lograr que la lengua llegue a ser un medio de comunicación eficaz que pueda desarrollar cualquier función social y comunicativa» (D'Andrés 2018: 29).

Haugenen (1966: 933) *elaboration of function* delako urratsean gertatuko litzateke hori. Aldaera kodetu berriak nahikoa estatus lortzen du lehen beste hizkuntza edo aldaerek betetzen zituzten esparruetan erabiltzeko, zientzia arloan, administrazioan, irakaskuntzan eta, oro har, hizkera-maila jasoetan (Thomas 2010: 11). Horrela, hizkuntza hizkera-maila gehiagotara iristen da eta, pixkanaka, hizkera-mailen araberako aldakortasuna eratzen da.

Hizkuntza gutxituen ezaugarrietako bat urritasun funtzionala izan ohi da —*functional incompleteness*— (Androutsopoulos 2014: 37). D'Andrések (2018), asturieraz ari dela, honela dio:

> [S]e observa, acaso, que los hablantes de esta lengua la usan preferentemente en la conversación informal (en casa, con los amigos, con los compañeros de trabajo, en la tienda, etc.), pero no en situaciones formales (una entrevista de trabajo, con el profesor, con el jefe, con el empleado de cara al público, en actos solemnes, etc.) (D'Andrés 2018: 22).

Beste hizkuntza baten kasua ekartzearren, historikoki galiziera baserriko hizkuntza gisa hartu izan da, heziketarik gabeko hiztun-talde pobrearen hizkuntzatzat eta etxeko erabilerara mugatua izan da askotan (O'Rourke 2017: 85-86). Estandarra erabiliko litzatekeen eremuetan (irakaskuntzan eta administrazioan, besteak beste) hizkuntza nagusiak erabili dira; gaztelania aipatu ditugun asturieraren eta galizieraren kasuan eta gaztelania eta frantsesa euskararen kasuan (D'Andrés 2018: 23).

Horrela, bada, estandarizazioa hizkuntza gutxituek bizirik irauteko eta euren erabilera hedatzeko funtsezko prozesua litzateke, azken batean, hizkuntzen normalizaziorako urrats garrantzitsua (Costa eta beste 2017: 1-2; O'Rourke 2017: 86). Estandarraren bidez, besteak beste, iristen da hizkuntza gutxitua irakaskuntzan, hedabideetan eta bestelako eremu publiko formaletan erabiltzera (Costa eta beste 2017: 1-2). Adibidez, galiziera, Espainiako beste hizkuntza gutxitu batzuk bezala (euskara eta katalana, esaterako), frankismoaren ondoren, demokraziarako trantsizioan, 1970 inguruan alegia, hasi zen estandarizatzen, eta horren bidez lehen gaztelania baino erabiltzen ez zen esparruetara (erakunde publikoetara, besteak beste) hedatzen hasi zen. Hedapen horrek, era berean, galizieraren inguruko jarre-

rak aldatu zituen, hezi gabeko baserritar pobreen hizkuntza gisa ikustetik prestigio pixka bat lortzera igaro zen, eta bere erabilerak gora egin zuen (O'Rourke 2017: 85).

2.1.4 *Hiztun-komunitateak aldaera estandarra onartzea*

Haugenek (1966: 933) azaltzen dituen urratsen artean azkena hiztun-komunitatearen onarpena litzateke. Woollhiserrek (2011: 506) alderdi subjektiboen garrantzia azpimarratzen du urrats honetan, non jarrerak, ideologia eta identitatea aipatzen dituen. Alderdi subjektiboek eragina lukete hiztunek aldaera estandarrerako zehaztutako formak onartu eta erabiltzean. Aldaera estandarra artifiziala dela pentsatzen dute zenbaitek, estandarra dela aldaera onena beste batzuek eta toki-hizkeren (bernakularren) alde ere egiten dute beste hainbatek, batez ere azkenaldian (Androutsopoulos 2014; Coupland eta Kristiansen 2011). Artikulu honetan artifizialtasun-sentipenari jarriko diogu arreta.

Aurreratu bezala, aldaera estandarra artifiziala delako sentipena nagusitu ohi da zenbaitetan hiztunen artean. Adibidez, 30 urte baino gehiago dira galizieraren estandarizazioa hasi eta garatu zela, eta oraindik ere hiztunen erdiek galiziera estandarra artifizialtzat dute, horien artean irakaskuntzaren bidez galiziera estandarra urte askoan jaso duten (eta jasotzen duten) belaunaldi gazteak daude (Observatorio da Cultura Galega 2011 *apud* O'Rourke 2017: 90). Ramallo eta Rei-Dovalek (2015: 72) diotenez, estandarra artifiziala delako sentimendu hori gainditzea da galizieraren hizkuntza-plangintzak konpontzeko duen erronka nagusienetako bat.

Euskararen kasuan ere, euskara batua artifiziala delako sentipena nagusitzen da zenbait hiztunen artean. Gasparrek (2020) euskara batuaren eta euskalkien gaineko jarrerak eta iritziak aztertu ditu eta euskara batua artifiziala delako ideiak lekua izan du hainbat hiztunen erantzunetan. Naturaltasunari buruz galdetzean, euskalkien eta euskara batuaren arteko kontrakotasuna ez izan arren euskara batua sortu zenean bezain altua, oraindik

ere ehuneko handi batek (% 49,3) adierazi du euskalkiak euskara batua baino naturalagoak direla (Gaspar 2020: 142)[5].

Aldaera estandarra, aurrez eta berariaz eratua den heinean, artifiziala da: «todas las lenguas estándares existentes son en parte artificiales» (Moreno Cabrera 2009). Nolabait esan, ez dute hiztunek berez (hizkuntza erabiliz) eratu, baizik eta berariaz eratu du hizkuntzaren aditu-talde batek (hizkuntza-akademiak, adibidez). Hori dela eta, hiztunek izaera artifizial hori antzeman egiten diote aldaera estandarrari, hasiera batean behintzat. Ohiturarik ezak aldaera estandarraren artifizialtasuna indartzen du edo ageriko egiten. Ohikoa da hiztunak artifizialtasun-sentipena izatea ohituta ez dagoen formak erabiltzerakoan (Oñederra eta beste 2015: 517). Artifizialtasun-sentipenak batzuetan aldaera estandarrerako hobesten diren ezaugarriak ez erabiltzea, baztertzea edo ez onartzea ekarri ohi du (Darquennes 2011: 555). Era berean, pentsa liteke erabilerak eta denborak leunduko dutela hizkera baten artifizialtasuna, ohiturak aldatu ahala. Aldaera estandarraren onartze-prozesuan denbora eta ahalegina aldagai esanguratsuak dira: «Acceptance of the norm, even by a small but influential group, is part of the life of the language. Any learning requires the expenditure of time and effort» (Haugen 1966: 933).

Gure lan honetako hiztunek ere adierazi dute zenbaitetan ahoskera zaindurako proposatzen diren ebakera aukerak artifizialak direla eurentzat; 5. atalean sakonduko dugu gehiago artifizialtasun-sentipenaren alderdian.

---

[5] Gasparrek (2020), naturaltasunaz gain, euskara batuaren eta euskalkien autentikotasunaz (edo autentikotasunik ezaz) eta artifizialtasunaz (edo artifizialtasunik ezaz) galdetu die parte hartzaileei. Autentikotasunari dagokionez, % 46,1ek dio euskalkiak autentikoagoak direla, % 52,7ren ustez euskara batua eta euskalkiak, guztiak dira autentikoak eta % 1,2k baino ez du pentsatzen euskara batua dela guztien artean autentikoena. Artifizialtasunari begira jarrita, berriz, % 78,6k ez du uste euskara batua artifiziala denik eta % 21,4k, berriz, euskara batua artifizialtzat du. Badirudi, hortaz, euskara batua sortu zenetik aldaera estandarrak sor lezakeen artifizialtasun-sentipena apaldu dela pixka bat, baina oraindik ere hiztun-talde aski handi batek euskara batua artifizialtzat luke (Gaspar 2020: 142).

2.2 **Idatzia, aldaera estandarraren lehentasun**

Aurreko azpiatalean aurreratu dugu idatzia izan ohi dela aldaera estandarraren lehentasun, maiz ahozkoa egintzat ematen baita (J. Milroy eta L. Milroy 1999 [1985]: 55). Ahoskeraren estandarizazioa geroago etorri ohi da. Hainbat hizkuntzaren estandarizazio-prozesuetan lehendabiziko urratsa ortografia gaiak lantzea eta kodetzea izan da, horren ondoren gramatika eta lexikoa landu izan dira (horiek ere erabilera idatzirako, batez ere). Azkenik, egin denetan, ahoskera landu da.

Adierazi berri dugunaren erakusle dira gertu geratzen zaizkigun hizkuntza gutxitu batzuen kasuak; esate baterako, katalanarena, galizierarena eta asturierarena. Katalanaren kodetzea XX. mendean hasi zen Pompeu Fabraren erreforma ortografiko eta gramatikalarekin (González 2002: 13) eta, egun, idatzi estandarra nahiko garatua eta onartua dago hiztunen artean (Valverdú 1986: 317). Ahozkoan, ordea, egoera bestelakoa da; ahozko estandarra garatzea katalan estandarraren erronketako bat da oraindik ere (González 2002: 13). Galizieraren kasuan ere, aldaera estandarra eratzeko lehen uneetan, ortografiari, gramatikari eta hiztegiari, hurrenez hurren, jarri zitzaien arreta (Ramallo eta Rei-Doval 2015: 68). Idatzia izan zen beste behin lehentasunezko zeregina estandarizazio-prozesuan. Asturieraren estandarizazioak ere antzeko joera erakusten du, lehendabiziko egitekoa ortografia, gramatika eta hiztegia, hurrenez hurren, kodetzea izan baitzen (González 2002: 13). Lanaren sarreran aurreratu dugun bezala eta euskara batuaren ibilbideaz aritzerakoan (3. atala) zehaztuko dugun gisan, euskararen kasuan ere ahoskeraren arautzea idatziarena baino geroago etorri zen.

Hizkuntza nagusien edo handien kasuan ere, estandarizazio-prozesuan idatziak izan du lehentasuna, joera orokorra da, beraz (Jauregi eta Urreta 2023: 3). Thomasek (2010) gaztelaniaren, frantsesaren eta ingelesaren estandarizazioak aztertzen ditu bere lanean, eta horietan ere idatziak izan du garrantzi handiena; ahoskeraren estandarizazioak ibilbide txikiagoa du egina.

Ahoskera-gaiak finkatzea eta onartzea zailagoa izan ohi da, besteak beste, ahoskera oso lotua dagoelako hiztun bakoitzak hiztun gisa duen irudiarekin.

Esan liteke ahoskera dela hiztun batengandik jasotzen den lehen inpresioa, lehen iritzia (Haukland 2016; Rindal 2013). Hain zuzen, Euskaltzaindiak (1998: 485) EBAZ arau edo proposamenak aurkeztu zituenean adierazi zuen, ahoskera-gaietan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanda, ohartzen zirela arau horiek denbora gehiago eskatuko zutela hiztunen artean barneratzeko idatzirako ematen zirenek baino.

3 **Euskararen ahoskeraren estandarizazioa**

XX. mendearen erdialdera euskal gizartea esnatzen hasi zen[6]. Batetik, euskara irakaskuntzan sartu zen. Haurrak eskoletan euskaraz ikasten hasi ziren (ikastolen sorrera garai honetan kokatzen da), baita helduak ere gau-eskola eta euskaltegietan. Bestetik, administrazioan eta hedabideetan, pixkanaka, zirrikituak ireki zitzaizkion euskarari (Zuazo 2006 [2005]: 12). Kulturaren arloan ere euskara sendotzeko nahia nagusitu zen.

Garai hartako zenbait egitasmo (ikastolak eta gau-eskolak, adibidez) aurrera eramateko funtsezkoa zen euskara batu eta arautu bat izatea (Zuazo 2008: 3). Horrela, euskara batu baterako urratsak ematen hasi ziren eta 1968an euskara batuaren oinarriak finkatu ziren Arantzazun; idatzirako ezarri ziren oinarri horiek[7]. Urte horretan Euskaltzaindia sortu zela 50 urte zirela ospatzen zen eta, Arestik eskaturik, biltzarra egin zen Arantzazun, euskararen batasunaren oinarriak finkatzeko helburuarekin (Villasante 1994: 653). Mitxelenari agindu zitzaion gai hura biltzar hartarako prestatzea eta bost atal zituen txostena prestatu zuen; ortografia, euskal hitz eta aldae-

---

[6] Aipatzekoa da 1980tik aurrera, Francoren diktadura amaitu (1975ean hil zen) eta demokraziaranzko bidean, euskara gaztelaniarekin batera ofizial bihurtu zela zenbait euskal eremutan: EAEn eta Nafarroako eremu batzuetan. Gertakari horrek euskararen estatusari mesede egin zion eta hizkuntzaren erabilera indartzeko lagungarri izan zen.

[7] Lanaren helburuak gaindituko liratekeenez, ez dira euskara batuaren hastapenen (1968 baino lehenago ere izan zen eredu batu bat eratzeko saiakerarik) eta eraketaren nondik norakoak sakon aztertuko. Horien berri jakin nahi izanez gero, ikus, besteren artean, Zuazo (2006 [2005]) eta Hualde eta Zuazo (2007).

ra lexiko zaharrak, hitz berriak, morfologia eta sintaxia izan ziren atal haiek (Mitxelena 1968: 204). Ahoskeraz ez zen, hortaz, ezer esan.

Mitxelenak aurkeztu zuen txostenean bertan adierazi zuen idatziak izango zuela lehentasuna estandarizazioaren lehen garaietan: «Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da» (Mitxelena 1968: 203). Arantzazuko Biltzarraren ondoren, Euskaltzaindiak euskararen batasunari buruz atera zuen agirian berariaz nabarmendu zen batasuna euskara idatzirako (literatura euskararako) proposatzen zela eta haren arrakasta edo porrota idazle eta irakasleen esku geratzen zela, neurri handi batean (Euskaltzaindia 1968: 250).

Euskara batua, hasiera batean, idatzirako proposatu arren, pixkanaka, ahoskera estandarizatzeko beharra nagusitzen hasi zen. Beharren artean, besteak beste, hedabide komunak izatea eta euskara irakaskuntzan eta administrazioan erabiltzea aipa daitezke, esparru horietako zenbait erabileratarako behintzat, egokiagoa baitirudi, lekuan lekuko hizkerak baino, estandarrak dakarren hizkera formalagoa erabiltzeak (J. Milroy eta L. Milroy 1999 [1985]: 22).

Gauzak horrela, estandarraren ahoskerak (ahoskera zainduak)[8] nolakoa izan behar zuen aztertzen hasi zen lehen aldiz Euskaltzaindia 1993an. Hurrengo urtean, Leioako Biltzarra izan zen, Arantzazuko Biltzarretik (1968) denbora tarte esanguratsua igaro zela kontuan izanda, zenbait erabaki berrikusteko eta berriak hartzeko helburuarekin. 1994ko biltzar hartan ahoskera arautzeko premia nabarmendu zen; urte hartakoa da ahoskerari buruzko lehen txostena, non, besteak beste, Ahoskera Batzordearen egitekoak eta proposamenak aurkezten diren (Oñederra 1994: 1589). Horrekin batera, «Abiaburu zehatz batzuk» izeneko atal bat dago, non hizkera zaindua erabili behar denetan euskarazko bokalak, bokal-bilkurak, kontsonan-

[8] Mitxelenaren proposamena da *zaindu* terminoa. Hizkera formal edo jasoari legokiokeena litzateke *ahoskera zaindua*, hizkera horretan hiztunak arreta jartzen duelako edukian (mezuan) ez ezik, eduki hori adierazteko forma fonikoan (ahoskeran) ere. Gainerakoak, formari dagokionez, *arduragabe* lirateke, hortaz (Oñederra eta beste 2015: 506).

teak eta kontsonante-bilkurak nola ahoskatu proposatzen den (Oñederra 1994: 1595-1602).

1996 eta 1998 bitartean, hizkuntzalariz eta irakaslez osatutako talde batek lanean jarraitu zuen, 1994an plazaratutako proposamenen azterketa teoriko eta praktikoa egiten, batez ere (Oñederra 1998: 379).

Azkenik, 1998an EBAZ argitaratu zen, zeina ahozko hizkera estandarrerako hiztun ororen erreferentzia tresna litzatekeen, hizkuntzaren maila jasoetan erabiltzekoa (Euskaltzaindia 1998: 485). Arau edo proposamen horien eta 1994koen artean ez dago alde handirik, arauak aurkezteko era edo antolaketa bera izan zen (bokalak, bokal-bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante-bilkurak banatu ziren) eta proposamenen muinean ere ez zegoen ezberdintasun askorik. Nolabait esan, lehenengo urte hartako abiapuntuak osatuta aurkeztu ziren 1998an[9].

Urte hartatik aurrera, ahoskeraren arautze-lanari dagokionez, eten bat gertatu zen 2013 arte; 2011n hasi ziren biltzen, lantalde suntsikor gisa. 2013an Ahoskera Batzorde berri bat sortu zuen Euskaltzaindiak, egun ere lanean diharduena (Oñederra 2016, 2017). Egungo eginkizun nagusiak 1998an plazaratutako EBAZ arau edo proposamenak lantzea, garatzea eta komunikatzea lirateke. Azken zeregin hori (komunikatzearena) nabarmentzekoa da; izan ere, EBAZ proposamenak ez ziren indar handiarekin atera, ez zuten oihartzun handirik izan. Badirudi arauen komunikazioan ez dela arrakasta handirik lortu, ez da hiztunen ulermena guztiz bermatu; beharbada, arauak azaltzeko eran huts egin dela dio Euskaltzaindiko Ahoskera Batzordeko buru den Oñederrak (2016: 134).

Euskara batu idatzian Haugenek (1966) azaltzen dituen estandarizazioprozesuaren lau urratsak (2.1 atala), hein batean behintzat, bete dira (ikus Hualde eta Zuazo 2007). Ahoskeraren estandarizazioan, berriz, ez da lortu urrats horiek guztiak ematea. Euskaltzaindiak ahoskera estandarizatzeko

[9] «EBAZ arauak» edo «proposamenak», pluralean, idatzi da zenbaitetan artikuluan zehar, hainbat bokal, bokal-bilkura, kontsonante eta kontsonante-bilkuraren ahoskerarako arauak ematen direlako. Dena dela, zehaztu nahi da EBAZ arau bakarra dela; hain zuzen ere, Euskaltzaindiak ateratako 87. araua.

proposamenak argitaratu ditu, arauen kodetzea egin da (hor dugu EBAZ). Gorago adierazi bezala, ordea, ez da arauen komunikazioan gehiegi asmatu eta horrek hiztunek proposamen horiek asko ez ezagutzea, ez erabiltzea edo behar bezala ez ulertzea ekarri du. Esan daiteke ez dela hiztun-komunitatearen onarpena guztiz lortu eta, beraz, aldakortasunaren eratzea ere ez da askorik garatu (Oñederra 2017: 351-352). Aurrera begirako erronketako bat 1998ko arau edo proposamenen komunikazioa sendotzea eta arauak praktikara eramatea litzateke, horretarako, irakaskuntzak eman dezakeen laguntza eta bidea baliatuta (Oñederra eta beste 2015: 503). Horretan dihardu azken urteetan Ahoskera Batzordeak: Euskal Herriko hainbat lekutan (Gasteizen, Iruñean, Bilbon, Donostian, Baionan) ahoskera lantzeko ikastaro eta mintegiak eskaintzen ditu, hizlari profesionalei (telebista eta irratietako esatariei, adibidez), hezkuntza-arloko irakasleei, kultura-sortzaileei (aktoreei, bikoiztaileei, etab.) eta, oro har, ahoskerarekiko interesa duen edonori zuzenduak.

4 **Corpusa eta metodologia**

Euskal hiztunek hizkera-mailaren arabera ahoskera aldatzen duten edo ez jakiteko eta, batez ere, ahoskera zaindurako proposamenen gainean dituzten uste eta iritziek euren ahoskera hautuetan izan dezaketen eragina aztertzeko, zenbait hiztunen hizkera-maila ezberdinetako ahozko jardunak bildu dira. Horrekin batera, galdetegiak ere egin zaizkie, euren jarrera eta usteak jasotzeko. Atal honetan, corpusaren eta datu-bilketaren berri emango da[10].

4.1 **Hiztunen profila**

Ikerlanerako hiztunak aukeratzean, batez ere, hiru ardatzetan jarri da arreta.

[10] Lan honetan aurkeztuko den corpusa Urreta (2025a) lanean erabilitakoa da. Lan horretan corpusaren eta metodologiaren xehetasun gehiago aurki daitezke.

4.1.1 *Ardatz dialektala*

Lehen erkaketarako, Hegoaldeko hizkera bateko eta Iparraldeko beste hizkera bateko ahoskerak biltzea erabaki da. Eremu dialektal ezberdinetako hiztunak kontuan hartzeak ahoskera-gertakizun gehiago aztertzeko aukera eskaintzen du, eta are gehiago hizkera horiek Hegoaldekoak eta Iparraldekoak direnean; izan ere, zenbait lanetan erakutsi den bezala (ikus Oñederra eta beste 2015: 515), bi eremu horietako ahoskeren arteko aldeak handiak dira. Horrez gain, kontuan hartu da alde bakoitzean erdarek duten eragina ere: gaztelaniarena Hegoaldean eta frantsesarena Iparraldean, zeinek euskararen ahoskeran izan dezaketen eragina aztertzeko aukera ematen duten.

Horrela, Ikaztegietako eta Baigorriko zortzina hiztun aukeratu dira. Bi kasuetan, euskalkia nahiko indarrean dagoen hizkerak dira, eta horrek, batetik, ahoskera gertakizunen aberastasuna bermatzen du eta, bestetik, aukera ematen du aldaera ez-estandarraren eta estandarraren arteko erlazioa aztertzeko, baita hizkera-mailen araberako aldakortasuna ere; izan ere, sarritan euskalkiak lagunarteko hizkera-mailekin eta euskara batua maila jasoekin lotu izan dira (Urreta 2025a: 456-457).

Azkenik, hautaketan eragina izan dute arrazoi praktikoek ere, hala nola hiztunak eskuratzeko erraztasunak.

4.1.2 *Euskara ikasteko modua*

Lehen itzulian, euskara etxean ikasi duten hizkera banatako launa hiztunen datuak bildu dira eta, bigarren itzulian, euskara etxean ikasi ez duten hizkera beretako beste launa hiztunen datuak jaso dira. Gogoan izan behar da euskal hiztunen artean geroz eta gehiago direla azken profil horretako hiztunak eta, beraz, horiek kontuan hartzea esanguratsua eta ia ezinbestekoa litzateke euskararen ahoskeraren ikerketa oso bat egiteko. Halaber, hizkera-mailen araberako aldakortasunari dagokionez, interesgarri izan daiteke bi profil horietako hiztunak kontuan hartzea, euskara ikasteko moduak ondorioak izan baititzake hizkera-mailaren araberako aldakortasunean (Urreta 2025b).

4.1.3 *Adina*

Hiztunen erdiak 20-30 urte bitartekoak izan dira eta beste erdiak 50-60 urte bitartekoak, hainbat adin-tarte edo belaunalditako hiztunen artean izan daitezkeen ahoskera aldeak aztertzeko bidea ere zabaldu nahi izan baita.

Guztira, beraz, 16 hiztunen datuekin egin da lan, eta emaitzak lehen hurbilketa baten barruan ulertu behar dira. Euskararen ahoskeraren eta hizkera-mailen arteko harremana oraindik gutxi aztertua denez, ikerketa hau lehen hurbilketa edo ikerketa-froga gisa egin da, lehentasuna aldagai esanguratsu batzuk (hizkera, adina eta euskara ikasteko modua) kontuan hartzeari emanda, hiztun-kopuru handiagoa biltzeari baino.

Artikulu hau, gainera, ikerketa zabalago baten (doktoretza-tesi baten) barruan kokatzen da (Urreta 2025a), non helburua den euskararen ahoskeran hizkera-mailaren araberako aldakortasunean eragina duten faktore nagusiak identifikatzea (artifizialtasun-sentipena tartean)[11]. Datuen azterketarako EBAZ araua hartu da erreferentziatzat, eta bertan jasotzen diren ahoskera-gertakizun guztiak (bokalak, bokal-bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante-bilkurak) aztertu dira; horrek berak ere zaildu egiten du hiztun-kopuru handiagoarekin lan egitea, aztergai den fenomenoen kopurua handia baita.

Aurrera begira, lortutako emaitzek erakusten dutenaren arabera, aldagai emankorrenetan sakontzea aurreikusten da (esaterako, artifizialtasun-sentipenean) eta, behar izanez gero, hiztun- eta hizkera-kopurua handitzea, emaitzen sendotasuna eta hedadura areagotzeko.

---

[11] Artikulu honetan aztergai den artifizialtasun-sentipenaz gain, bereziki beste bi aldagai aztertu dira hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunaren baldintzatzaile nagusi gisa; euskara ikasteko modua (ikus Urreta 2025b) eta aldaera idatzia (ikus Urreta inprimategian).

1. taula. Ikerlanean parte hartu duten hiztunak[12]

HIZTUNAK				
Adina	**Ikaztegieta**		**Baigorri**	
	Euskara etxean ikasiak	**Euskara etxean ez ikasiak**	**Euskara etxean ikasiak**	**Euskara etxean ez ikasiak**
20-30 urte	IK1	IK5	BA1	BA5
	IK2	IK6	BA2	BA6
50-60 urte	IK3	IK7	BA3	BA7
	IK4	IK8	BA4	BA8

4.2 **Datu-bilketa eta -azterketa**

Hizkera-maila ezberdinetako ahoskerak aztertu nahi izan dira ikerlan honetan eta, beraz, maila batzuk zehaztu behar izan dira. Ez da erraza hizkera-mailen arteko banaketa bat egitea. Hizkera-mailak zenbakaitzak direla esan liteke, euren arteko aldeak ugariak eta era askotakoak direlako eta ezin delako erabateko mugarik aurkitu bataren eta hurrengoaren artean (Oñederra 1994: 1592).

Ikerlan honetan, gutxieneko banaketa bat egitearren, Mitxelenarengandik datozkigun *zaindu* eta *arduragabe* terminoei jarraituta, hizkera-maila zaindua eta arduragabea bereizi dira, betiere kontuan izanda zaindua eta arduragabea etenik gabeko *continuum* baten bi ertzak liratekeela. Tartean batetik besterainoko aldaera eta mailak leudeke, zenbatzeko eta mugatzeko zailak direnak (Oñederra eta beste 2015: 525). *Zaindu* eta *arduragabe* terminoak aski lotuak daude ahoskera gaiekin (ikus 8. oin-oharra) eta horregatik banaketa aproposa litzateke ikerlan honetarako. Horrela, bada, hizkera-maila arduragabeko eta zainduko jardunak bildu dira.

---

[12] Ikerlanean parte hartu duten hiztunak izendatzeko, euren bizitokiaren lehen bi letrak eta zenbakiak erabili dira; alegia, Ikaztegietako hiztunak izendatzeko, «IK» gehi zenbakiak eta Baigorrikoentzat «BA» gehi zenbakiak jarri dira.

4.2.1 *Hizkera-maila arduragabeko jarduna*

Hiztunekin solasaldi bana egin da, eguneroko gaien edo zereginen inguruan; esaterako, euren lanaz, ikasketez edo herriko jaiez aritu dira hizketan. Helburua izan da ahalik eta hizketa bat-batekoena biltzea. Horretarako, eguneroko gaiez aritzeaz gain, solasaldiak binaka egin dira, hiztunen euren etxeko edo lagun batekin eta eurentzat ezagunak diren lekuetan egin dira, gehienetan euren etxeetan. Gutxi gorabehera, ordubete iraun dute.

4.2.2 *Hizkera-maila zainduko jarduna*

Hiztunei egoera bat eman zaie irudikatzeko. Esan zaie, Argiaren Nazioarteko Eguna dela eta, ETB1ek dokumental bat egingo duela eta, eurak fisikan, batez ere argiaren zientzietan, adituak direnez, dokumentalean parte hartzera gonbidatu dituztela; gonbidapena onartu egin dutela eta testu bat prestatu dutela, dokumentalean atzeko ahots gisa jarriko dena. Beraz, euren zeregina eman zaien testua ozen irakurtzea izan da. Jendearen aurrean irakurtzeak, hein batean behintzat, hizkera zaindua erabiltzea errazten duenez, irakurtzeko testu bat ematea aukera egokia izan daitekeela pentsatu da, hiztunei maila jaso bat irudikatzen laguntzeko (ikus Urreta 2022: 14-15). Batez beste, 10 minutuko jardunak izan dira.

Azkenik, datuen bilketa amaitzeko, galdetegi bana egin zaie hiztunei.

4.2.3 *Galdetegia*

Zenbait ahoskeraren gainean dituzten jarrera eta usteei buruzko galderak egin zaizkie, uste horiek eragina izan baitezakete hiztunek ahoskera bat edo beste erabiltzean. Galdetegiak EBAZ arau edo proposamenen inguruan eta, oro har, zenbait ahoskeraren inguruan hiztunek dituzten pertzepzio eta jarreren berri izateko asmoarekin egin dira.

Galderak, batez ere, maila zainduan erabili dituzten ebakerei buruzkoak izan dira eta EBAZen hobesten diren ahoskera batzuen inguruan zein iritzi

duten (arrotza, artifiziala, etab.) ere galdetu zaie. Horrekin batera, galdera horien bidez, hiztunek aldaera estandarrarekin (euskara batu zaindurako ahoskera-arauarekin, EBAZekin) duten harremana nolakoa den ezagutzeko aukera ireki da, besteak beste, ondoko galderei erantzuteko: zein ahoskera dituzte hiztunek euskara batu zaindutzat? Ahoskera-aukera horiek bat datoz EBAZ arauan hobesten direnekin? EBAZeko proposamenak ezagun zaizkie? Hala bada, betetzen dituzte edo behintzat betetzeko ahalegina egiten dute? Ez bada hala, zein da arrazoia? Hiztunarentzat arrotza izan daitekeen ahoskera bat erabiltzeak zer sortzen dio hiztunari? Ziurgabetasuna eta lotsa izan daitezke sentimendu horietako batzuk? Zein jarrera hartzen dute hiztunek arrotz egiten zaizkien ahoskeren aurrean? Galdera horiei eta beste zenbaiti erantzuteko asmoz egin dira galdetegiak. Hiztun bakoitzak aurrez bi hizkera-mailetako jardunetan erabili dituen ahoskeren arabera, galderak moldatu egin dira; izan ere, galderak hiztunek aurrez ahoskatu dutena kontuan hartuta egin dira.

5 **Hiztunen jarrera eta usteak: artifizialtasun-sentipena**

Bildutako datuak antolatu eta aztertzeko, EBAZ araua hartu da erreferentziatzat; hau da, bertan agertzen diren bokalak, bokal-bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante-bilkurak aztertu dira. Bi hizkera-mailetako ahoskerak erkatu dira eta maila zainduko jardunetan EBAZ proposamenak betetzen diren edo ez ere adierazi da. Horrekin batera, galdetegietan jasotako informazioa aztertu da, hiztunen jarrera eta usteak ezagutu eta horiek hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunean izan dezaketen eragina ikertzeko. Azken alderdi hori landuko da jarraian; hau da, galdetegietan bildu diren jarrera eta iritzi behinenak azalduko dira.

Galdetegietan bildutako informazioa aztertuta, nagusiki, sentipen bat gailendu da: artifizialtasun-sentipena. Hiztunek azaldu dute ahoskera batzuk arrotzak, ez-naturalak iruditzen zaizkiela. Esate baterako, <j> eta <e>/<i>-ren aurreko maileguetako <g> kontsonanteen ahoskeren kasuan adierazi dute arroztasun-sentipena. Ikaztegietako eta Baigorriko hiztu-

nek ahoskera ezberdinak erabili dituztenez, bereizita aztertuko dira herri bakoitzeko ebakerak eta beren inguruko jarrera eta usteak.

5.1 **Ikaztegietako hiztunen ahoskerak**

5.1.1 *Datuak*

Ikaztegietako hiztun guztiek <j>, bai euskal hitzetan, bai maileguetan, [x] belar ahoskabe ebaki dute beti; ez da hizkera-mailaren araberako aldakortasunik nabari: [x]aio, *[x]oera*, *[x]aki*, *ima[x]inatu*, *[x]ende*, *gara[x]e*[13].

2. taula. Ikaztegietako hiztunen <j> kontsonantearen ahoskerak bi hizkera-mailetan

Hiztunak	Hizkera-maila arduragabea	Hizkera-maila zaindua
Guztiak	[x]	[x]

EBAZen <j>-ren ahoskera sabaikaria proposatzen da (VIII. araua): *[ɟ]an*, *[ɟ]o*, *[ɟ]ende*. Ikaztegietako hiztunen adibideek erakusten duten gisan, Hegoaldean, gaztelaniaz bezala, [x] belar ahoskabea ahoskatu ohi da sarri eta, Baigorriko datuak aztertzean ikusiko den moduan, Iparraldean sabaikaria euskal hitzetan eta [ʒ] igurzkari sabaiaurreko ahostuna askotan maileguetan. EBAZ arauen irizpide nagusietako bat hizkuntzaren batasuna da; hizkera desberdinen artean eta, batez ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artean geroz eta handiagoa den distantzia leuntzeko asmoa dute (Oñederra eta beste 2015: 515). <j>-ren kasuan, /x/ ez dago, oro har, Iparraldeko hiztunen fonema inbentarioan eta ezta /ʒ/ Hegoaldeko askorenean ere. Ez dute, bada, ahoskera batzeko balio. Horrela, bi aldeetako hiztunek ahoska lezaketen hots sabaikariaren ([ɟ] herskaria nahiz [j] igurzkaria, ingurunearen arabera) alde egiten da; *sa[j]o*, *ma[j]ats* edo *[ɟ]on* (*Jon* pertsona-

[13] Datuen irakurketa errazteko helburuz, idazkera ortografikoa erabiliko da hiztunen datuak aurkezteko, azpiatal bakoitzean aztergai den hotsa bakarrik transkribatuko da.

izena) bezalako hitzetako ahoskera sabaikariaren alde, alegia. Gure Ikaztegietako hiztunek ez dute, beraz, EBAZ araua bete.

Antzeko kasua da <e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g> kontsonantearen ahoskerarena. Ikaztegietako hiztunek maileguetako <g> [x] belar ahoskabe ebaki dute, oro har, hizkera-maila edozein izanda ere: *a[x]endak*, *pribile[x]io*, *[x]eolo[x]iako*, *[x]eometria*, *oxi[x]enoa*, *ener[x]ia*. Salbuespen gutxi batzuk izan dira maila zainduan, non bi hiztunek batzuetan ahostun ebaki duten: *[x]eometria*, *oxi[x]enoa*, *ener[x]ia*, *teknolo[x]ia*, *kirur[x]ikoetan*, *biolo[x]ian*, baina *[g]enomen*[14], *[g]eolo[x]ian* (IK4) eta *[x]enomen*, *oxi[x]enoa*, *ener[x]ia*, *teknolo[x]ia*, *kirur[x]ikoetan*, *biolo[x]ian*, baina *[g]eolo[x]ian*, *[g]eometria*, *ener[ɣ̟]ian* (IK7).

3. taula. Ikaztegietako hiztunen <e>/<i>-ren aurreko maileguetako <g> kontsonantearen ahoskerak bi hizkera-mailetan

Hiztunak	Hizkera-maila arduragabea	Hizkera-maila zaindua
IK1, IK2, IK3, IK5, IK6, IK8	[x]	[x]
IK4, IK7	[x]	[x]/[g]

Oro har, Ikaztegietako hiztunek ez dute EBAZ araua bete, <e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g>, gainerako bokalen aurrean bezala, [g] ahostun ahoskatzea proposatzen baita (V.1. araua). <j>-ren ahoskeraz aritzean azaldu moduan, gaztelaniazko (besteak beste) [x] belar ahoskabeak eta frantsesezko (besteak beste) [ʒ] igurzkari sabaiaurreko ahostunak (Baigorrikoek maiz hala ahoskatu dute), ez batak ez besteak, ez dute balio ahoskera batzeko. Gauzak horrela, [g] ahoskatzearen alde egiten da, /g/ bizirik

[14] Lan honetan, lehen hurbilketa gisa, hitza hartu da gertaeren esparru prosodikotzat. Horrela, hitz hasierako <g>-ak ahostun ahoskatu direnetan, [g] herskari belarra idatzi da. Ingurune jarraituan (hitz barneko bokalen artean edota dardarkariaren eta bokal baten artean, adibidez) ahoskatu denetan, berriz, [ɣ̟] hurbilkari belarra idatzi da. Corpusa berriz begiratu eta azterketa akustikoa egitea komeniko litzateke horrelako kasuetan, benetan ingurune jarraitua edo ez-jarraitua den jakin ahal izateko.

dagoelako euskal hiztun guztien (izan Iparraldeko, izan Hegoaldeko) fonema-inbentarioan; [g] erabiltzen dute hiztun guztiek beti mailegu nahiz euskal hitzetan <a>, <o> eta <u> aurrean eta baita mailegu ez diren hitzetako <e> eta <i> aurrean ere: *[g]auza*, *[g]abardina*, *[g]oi*, *[g]oma*, *[g]u*, *[g]ustu*, *[g]ero*, *[g]ibel*.

5.1.2 *Galdetegietako iritziak*

Ikaztegietako hiztunen bi mailetako ahoskerak aztertuta, galdetegietan galdetu zaie zer pentsatzen duten <j> sabaikari ([ɟ] edo [j]) eta <g> belar ahostun ([g]) ahoskatzeaz. Erantzun dute ahoskera horiek arrotzak direla eurentzat, artifizialak direla, ez baitaude ebakera horiek erabiltzera ohituta, ezta asko entzutera ere; salbuespen nagusia telebistako esatari batzuen ahoskerak izan ohi direla esan dute[15]. 2.1 atalean (4. puntuan) ikusi dugu artifizialtasun-sentipena ohikoa izaten dela hiztunak erabiltzen ohituta ez dagoen ahoskeraren bat erabili behar duenean eta horrek sarri ebakera hori erabiltzeko ezintasuna ekartzen diola. Askok adierazi dute lotsa ere ematen diela atal honetan aztergai diren bi ahoskera horiek erabiltzeak; ebakera horiek entzunda, entzule, hartzaile edo solaskideak zer pentsatu behar duen etortzen zaie burura eta lotsatu egiten dira. Gainera, erabiltzen ohituta ez dauden ebakerak izanik, ziurtasun-falta sortzen diete maiz. Adibidez, euskara euskaltegian ikasi duen IK7 hiztunak dio <j> sabaikari eta maileguetako <g> belar ahostun ahoskatzean badirudiela ez dela bera ari hitz egiten, hiztun bezala dituen ezaugarriak galtzen dituela eta horrek, aldi berean, lotsa sortzen diola. Horrez gain, konfiantza falta eragiten omen dio ahoskera horiek erabiltzeak, une oro pentsatzen aritu behar duelako nola ahoskatu hitz bakoitza eta trabatu egiten dela hitz egiterakoan. IK2 hiztunak, berriz, antzerki pixka bat egin beharko lukeela dio *[ɟ]an* edo *[g]eometria* bezalakoak ebakitzeko. Antzerkia egin behar horrek barregura eta lotsa eragiten dizkiola aipatu du eta horregatik zaila dela berarentzat horrela ahoskatzea.

---

[15] Urreta (2020) lanean ere artifizialtasun-sentipenaren ideia landu zen, kasu hartan ere, Alegiako (Gipuzkoa) hiztun batzuek <j> sabaikari ahoskatzerakoan sentitu zuten.

Zenbait hiztunek <j>-ren ahoskera sabaikariaren eta <g>-ren ebakera ahostunaren inguruko iruzkin gogorragoak ere egin dituzte. Besteak beste, euskara txikitatik etxean bereganatu duten IK1 eta IK3 hiztunek esan dute behartutako ahoskerak direla, ez direla berezkoak. IK3k gehitu du belarriko mina ematen diotela entzuteak ere; <e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g>-ren [g] ahoskeraz (*[g]eometria* formaren ebakeraz, zehazki) honakoa aitortu du: «askotan telebixioa ikusten, entzuten zaude, baino mobilen ai zea, ba ustet hitz hoi hola entzun da esango nukela: baino ze esaten ai da eo nundik eroi da? Ulertzeiazu? Esatezu, ez». Beste bi hiztunek (IK4k eta IK8k), berriz, aitortu dute ez zaizkiela gustatzen bi ebakera horiek; IK8 hiztunak, zehazki, adierazi du ez dela ahoskera horien zalea, bera eskola zaharrekoa delako. Pentsa liteke, beraz, azken hiztun horrentzat *[ɟ]an* eta *[g]eometria* bezalako ahoskerak erabiltzea egungo garaietako aukera dela, bere esanak gogoan, arauarekin eta eskolarekin lotzen ditu eta [x] jotzen du berezko ahoskeratzat, ebakera tradizionaltzat; Ikaztegietako adineko jendeak beti darabilen ebakera belar ahoskabea dela dio.

Maila zainduko jardunetara begira, hiztun gehienek azaldu dute balizko ETB1eko dokumentalean ere (4.2 atala) [x] ebakiko luketela, nahiz eta jakin egoera jasoa dela eta horrelako testuinguruetarako proposatzen diren ebakerak sabaikaria eta belar ahostuna direla; kasu horretan, ez litzateke hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunik gertatuko. Deigarria da hiztun guztiek aitortu dutela badakitela egoera formaletarako ahoskera-arauek sabaikariaren eta belar ahostunaren alde egiten dutela, baina ezintasuna sentitzen dute ahoskera horiek erabiltzeko. Ezintasuna eta baita batzuek ezkortasuna ere, goiko paragrafoan aipatu ditugun hiztun batzuek ez baitute bi ebakera horiek erabiltzeko inongo ahaleginik egiteko asmorik erakutsi, kontrakoa, aurkako jarrerak nagusitu dira. Horrela, bada, hizkera-maila edozein izanda ere, hiztun gehienek [x] belar ahoskabea erabiliko lukete. Salbuespenak IK2 eta IK7 hiztunak lirateke, saiatuko omen lirateke balizko ETB1eko dokumentalerako *[ɟ]an* eta *[g]eometria* bezalako ahoskerak erabiltzen, badakitelako egoera jasoetarako hobesten direnak horiek direla. Hala ere, biek aitortu dute, ziurrenik, ez luketela lortuko beti bi ebakera horiek erabiltzea eta egunerokoan ahoskatu ohi duten [x] ere ebakiko luketela, konturatu gabe. Saiakera egingo omen lukete. IK7 hiztunak

aipatu du ohitura kontua dela uste duela eta denborarekin geroz eta errazago ahoskatuko lituzkeela bi ebakera horiek.

5.2 **Baigorriko hiztunen ahoskerak**

5.2.1 *Datuak*

<j> kontsonantearen ahoskerari dagokionez, Baigorriko hiztunek, Ikaztegietakoek ez bezala, euskal hitzetako <j> sabaikari ebaki dute beti (*[ɟ]oan*, *[ɟ]anaria*, *[ɟ]in*) eta baita mailegu batzuetakoa ere (*[ɟ]ende*, *[ɟ]ustuki*, *[ɟ]endarmeria*)[16]; beste zenbait mailegutako <j>, berriz, [ʒ] sabaiaurreko ahostun ebaki dute bi hizkera-mailetan: *gara[ʒ]eko*, *ima[ʒ]inatu*. Bestalde, maila zainduan bi hiztunek maileguetako <j> batzuetan, Hegoaldeko hiztun askok bezala, [x] belar ahoskabe ebaki dute: *gara[x]eko*, *erreporta[x]eetan* (BA1), *ima[x]inatu* (BA3).

4. taula. Baigorriko hiztunen <j> kontsonantearen ahoskerak bi hizkera-mailetan

Hiztunak	Hizkera-maila arduragabea		Hizkera-maila zaindua	
	Euskal hitzak	Maileguak	Euskal hitzak	Maileguak
BA2, BA4, BA5, BA6, BA7, BA8	[ɟ]	[ɟ]/[ʒ]	[ɟ]	[ɟ]/[ʒ]
BA1	[ɟ]	[ɟ]/[ʒ]	[ɟ]	[ɟ]/[x]
BA3	[ɟ]	[ɟ]/[ʒ]	[ɟ]	[ɟ]/[ʒ]/[x]

[16] 14. oin-oharrean adierazi bezala, lan honetan, lehen hurbilketa gisa, hitza hartu da gertaeren esparru prosodikotzat. Horrela, hitz hasierako <j>-k sabaikari ahoskatu direnetan, [ɟ] herskari sabaikaria idatzi da. Corpusa berriz begiratzea eta azterketa akustikoa egitea komeniko litzateke horrelako kasuetan, hitz hasierako <j> horiek benetan ingurune jarraituan edo ez-jarraituan dauden jakin ahal izateko.

Hiztunen ebakerak kontuan izanda, mailegu batzuen ahoskeren kasuan, ez da EBAZ araua bete, hizkuntzaren batasunaren izenean, ebakera sabaikaria proposatzen baita (VIII. araua). Horrekin batera, hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunik ez da gertatu, hizkera-maila edozein izanda ere, ahoskera berak erabili dituzte.

<e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g>-ren ebakerari dagokionez, bi hizkera-mailetan batzuetan [g] belar ahostun ebaki dute (*[g]eolo[ɣ]iako*, *ener[ɣ]ia*, *teknolo[ɣ]ia*) eta beste batzuetan [ʒ] sabaiaurreko ahostun (*lo[ʒ]ikoena*, *a[ʒ]enda*, *oxi[ʒ]enoa*). Hala ere, hiztun batzuek maila zainduan [g] ebaki dute beti eta hiztun batek maila arduragabean beti [ʒ].

5. taula. Baigorriko hiztunen <e>/<i>-ren aurreko maileguetako <g> kontsonantearen ahoskerak bi hizkera-mailetan

Hiztunak	Hizkera-maila arduragabea	Hizkera-maila zaindua
BA4, BA7, BA8	[g]/[ʒ]	[g]/[ʒ]
BA1, BA2, BA5, BA6	[g]/[ʒ]	[g]
BA3	[ʒ]	[g]/[ʒ]

Hiztunen ebakerek erakusten dute maiz ez dela EBAZ araua bete, [ʒ] sabaiaurreko ahostuna ebaki baitute eta EBAZen [g] belar ahostuna hobesten da (V.1. araua). Kasu honetan ere, hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasunik ez da, oro har, gertatu.

5.2.2 *Galdetegietako iritziak*

Baigorriko hiztunek galdetegietan adierazi dute frantseseko mailegu batzuetako <j> eta <g> [ɟ] eta [g] (hurrenez hurren) ebakitzea arrotz edo bitxi iruditzen zaiela. Zenbait hitz (*garaje* eta *agenda*, adibidez) bi ahoskera horiek erabilita ahoskatzea ez omen zaie natural egiten; adibidez, *gara[ɟ]e* hiztun guztientzat ahoskera artifiziala da eta *a[ɣ]enda* hiztun batzuentzat (euskara etxean ikasi duten helduentzat, bereziki) arrotza da, lotsa ere ema-

ten omen die, batez ere, mailegu batzuetako <j> (*garaje* edo *imajinatu* hitzetakoa, esaterako) sabaikari ahostun ahoskatzeak. Kasu horietan frantseseko [ʒ] ebaki ohi dute, hori da naturalki ateratzen zaiena; mailegu batzuetako <j>, Ikaztegietako hiztunek bezala, [x] belar ahoskabe ebakitzea (*gara[x]e*) sabaikari ahostun (*gara[j]e*) ebakitzea baino ohikoago iruditzen zaie hiztun batzuei. Esaterako, BA1, BA3, BA4 eta BA8 hiztunek adierazi dute balizko ETB1eko dokumental batean *gara[x]e* eta *ima[x]inatu* ahoskatuko lituzketela. Zehaztu dute Iparraldean ez dela ohikoa belar ahoskabea, baina badakitela badela hots hori Hegoaldean eta, ETB1 bereziki Hegoaldeko ikus-entzuleentzat zuzendua dela hautematen dutenez, belar ahoskabea ebakitzeko ahalegina egingo luketela. Guztiek aipatu dute badakitela [x] (*gara[x]e*, *ima[x]inatu*) gaztelaniazko ebakera dela eta [ʒ] frantsesekoa (*gara[ʒ]e*, *ima[ʒ]inatu*), baina bi ebakera horiek omen dira gehien entzuten dituztenak, lehena Hegoaldean eta bigarrena Iparraldean, hitz horietan sabaikari ahostunik ez dute entzuten eta gutxiago eurek erabiltzen. BA2 hiztunak hizkera-maila edozein izanda ere, hitz batzuetako <j> (*garaje* edo *imajinatu* hitzetakoa, esaterako) [ʒ] ebakiko lukeela dio; BA5 eta BA7 maila zainduan sabaikari ahostun ebakitzen ahaleginduko lirateke eta, azkenik, BA6 hiztunak mailegu ez den euskal ordainen bat erabiliko omen luke maileguetako <j> ahoskatu beharra saihesteko. Badirudi, beraz, Baigorriko hiztunentzat (ere) zenbait mailegutako <j> sabaikari ahostun ahoskatzea artifiziala dela eta horrek ahoskera hori erabiltzeko ezintasuna sortzen diela.

Aurreratu dugu <e> eta <i>-ren aurreko zenbait mailegutako <g> [g] ahoskatzea ere arrotz egiten zaiela Baigorriko hiztun batzuei, hitz batzuk [ʒ] erabilita ahoskatzera ohituta baitaude. Hala ere, hiztun gehienei ez zaie *gara[j]e* edo *ima[j]inatu* ahoskatzea bezain bitxi iruditzen *[g]eometria* edo *biolo[ɟ]ia* ebakitzea. Bereziki, eskolarekin harreman handiagoa edo gertuagokoa duten hiztunak ohituta daude maileguetako <g> belar ahostun ahoskatzera; hau da, bereziki, hiztun gazteen artean (eskolarekin hartueman handiagoa eta, bereziki, berriagoa dutenen artean) ohikoa da zenbait mailegutako <g>, hiztun helduek sabaiaurreko ahoskatu ohi dutena, belar ahostun ebakitzea. Esate baterako, BA5 hiztun gazteak azaldu du *[ʒ]eometria* bitxi egiten zaiola, berak *[g]eometria* ahoskatu ohi duela; BA6

hiztunak ere *[g]eometria* eta *biolo[ɣ]ia* ebaki ohi ditu euskaraz ari denean. Bi hiztun horiek esan dute eskolan hitz horiek [g] ahoskerarekin ikasi dituztela, nahiz eta jakitun diren beren inguruko hiztun askok frantseseko sabaiaurreko ahostunarekin ebakitzen dituztela askotan. Hiztun helduek, aldiz, aipatu dute eurentzat naturalena *[ʒ]eometria* ebakitzea dela, nahiz eta badakiten frantsesetik datorren ahoskera dela eta egun gazteen artean geroz eta gehiago entzuten dela *[g]eometria*. Hiztun heldu batzuentzat ez da natural azken ahoskera hori. Hala ere, hiztun guztiek adierazi dute jakitun direla egoera formaletarako hobesten den ebakera [g] dela eta guztiek esan dute ahalegina egin beharko luketela, beraz, ebakera hori erabiltzeko. Ordea, batez ere hiztun helduek artifizialtasun-sentipena izango omen luke-te hitz batzuk ahoskatzerakoan eta ez dakite ziur lortuko ote luketen mailegu guztietan [g] ebakitzea.

6 **Ondorioak**

Artikulu honetan aztertutako Ikaztegietako eta Baigorriko hiztunen ahoskera eta iritzien bidez, euskararen ahoskera formen eta artifizialtasun-sentipenaren arteko nondik norakoak ikertzeko lehen hurbilketa bat egin da. Azterketak erakutsi du, corpusaren oinarri izan diren hiztunen kasuan, ahoskera batzuen gainean dituzten iritzi eta usteek euren ahoskera-hautuak baldintzatzen dituztela eta horiek, era berean, hizkera-mailaren araberako aldakortasuna mugatzen dutela. Artifizialtasun-sentipena izan da, bereziki, baldintzatzaile, <j> kontsonantearen eta <e>/<i>-ren aurreko maileguetako <g>-ren ahoskeren kasuan azaldu bezala.

Esan daiteke artifizialtasun-sentipena ohitura-faltak sortua dela maiz; izan ere, hiztunek sentipen hori, oro har, ohituta ez dauden ahoskerak erabiltzean dute. Sentipen horrek ahoskera jakin batzuk erabiltzeko ezintasuna sortzen die eta ezintasun horrek, neurri batean, euren ahoskera-hautuak baldintzatzen ditu, baita hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna mugatu ere. Era berean, euren aukerek erdaren ahoskerei (gaztelaniako [x] eta frantseseko [ʒ], azaldutako kasuetan) irekitzen die zenbaitetan bidea eta euskararen batasuna lausotu egiten da. Bi aldeetako hiztunek dituzten

hotsen ([ɟ] eta [g]) alde egin beharrean, hiztun guztiek bereganatuak ez dituzten ahoskerak hautatzen baitituzte; Hegoaldeko gehienentzat arrotza da [ʒ] eta baita [x] ere Iparraldeko hiztun askorentzat. Horrela, bada, esan liteke artifizialtasun-sentipenak zaildu egiten duela ahoskeraren estandarizazioa; alegia, aldera estandarrerako proposatutako ahoskera-aukeren onarpen eta erabilerarako oztopo izan daiteke (2.1 ataleko 4. puntua).

Gauzak horrela, artifizialtasun-sentipena kontuan hartzeko alderdia litzateke euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera izan daitekeen aldakortasuna aztertzean eta, bereziki, ahoskeraren estandarizazioaren etorkizuneko zereginetarako. Hiztunen jarrera eta usteetan sakonduta, hiztunek egiten dituzten ahoskera-aukeren arrazoien berri izango genuke. Hori horrela, aurrera begira, interesgarri litzateke artikulu honetan abiatutako ikerlana zabaltzea, hiztun gehiagoz osatutako taldeekin lan eginez, beste testuinguru (hizkera, adibidez) eta hiztun-multzo batzuen joerak antzekoak diren edo ez ezagutzeko. Bestalde, aipatzekoa da, etorkizuneko erronkak gogoan, hiztunek aldaera estandarrerako ahoskerak onartzean irakaskuntzak egiteko garrantzitsua beteko lukeela. Artifizialtasun-sentipena, neurri handi batean, ohitura-faltak ekartzen badu, era berean, leundu ere ohitura hartzeak egingo du eta horretan irakaskuntzak leku esanguratsua betetzen du; hiztunei egunerokoan erabiltzen ez dituzten ahoskerak aurkeztu eta horien arabera ahoskatzen irakatsita, hiztunen artifizialtasun-sentipena leundu liteke.

Bibliografia

ANDROUTSOPOULOS, Jannis (2014). «Mediatization and sociolinguistic change. Key concepts, research traditions, open issues», *in* Jannis Androutsopoulos (arg.), *Mediatization and sociolinguistic change*. Mouton de Gruyter. https://doi.org/10.1515/9783110346831.3

AUER, Peter (2005). «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», *in* Nicole Delbecque, Johan van der Auwera eta Dirk Geeraerts (arg.), *Perspectives on variation. Sociolinguistic, historical, comparative*. Mouton de Gruyter. https://doi.org/10.1515/9783110909579.7

BEINHOFF, Bettina (2013). *Perceiving identity through accent: Attitudes towards non-native speakers and their accents in English*. Peter Lang.

CESTERO, Ana María eta PAREDES, Florentino (2018). «Creencias y actitudes hacia las variedades cultas del español actual: el proyecto PRECAVES XXI», *Boletín de Filología* 53 (2): 11-43. https://doi.org/10.4067/s0718-93032018000200011

COSTA, James, DE KORNE, Haley eta LANE, Pia (2017). «Standardising minority languages. Reinventing peripheral languages in the 21st century», *in* Pia Lane, James Costa eta Haley de Korne (arg.), *Standardizing minority languages. Competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery*. Routledge. https://doi.org/10.4324/9781315647722 (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

COUPLAND, Nikolas eta KRISTIANSEN, Tore (2011). «SLICE: Critical perspectives on language (de)standardisation», *in* Tore Kristiansen eta Nikolas Coupland (arg.), *Standard languages and language standards in a changing Europe*. Novus Press.

CROWLEY, Tony (1989). *Standard English and the politics of language*. University of Illinois Press.

D'ANDRÉS, Ramón (2018). «Lenguas minoritarias y estandarización», *in* Javier Giralt eta Francho Nagore (arg.), *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización*. Prensas de la Universidad de Zaragoza.

DARQUENNES, Jeroen (2011). «Minorities, language politics and language planning in Europe», in Bernd Kortmann eta Johan van der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Mouton de Gruyter.

EUSKALTZAINDIA. (1968). «Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria», *Euskera* 13: 250.

EUSKALTZAINDIA. (1998). «Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua», *Euskera* 43 (2): 485-490.

FERGUSON, Charles A. (1996 [1988]). «Standardization as a form of language spread», *in* Thom Huebner (arg.), *Sociolinguistic perspectives: papers on language in society, 1959-1994*. Oxford University Press.

GARRETT, Peter (2010). *Attitudes to language*. Cambridge University Press.

GASPAR, Artzai (2020). «Euskara batuaren eta euskalkien inguruko jarrerak eta iritziak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 115 (2): 137-153.

GONZÁLEZ, Francesc (2002). «Los conceptos de codificación y estandarización según las experiencias catalana y asturiana», *Ianua. Revista Philologica Romanica* 3: 13-33.

HAUGEN, Einar (1966). «Dialect, language, nation», *American Anthropologist* 68: 922-935.

HAUKLAND, Ola (2016). *Attitudes to Norwegian-accented English among Norwegian and non-Norwegian listeners*. Master tesia, Osloko Unibertsitatea. DUO gordailu instituzionala. https://hdl.handle.net/10852/51599 (2026ko ekainaren 2an kontsultatua).

HUALDE, José Ignacio eta ZUAZO, Koldo (2007). «The standardization of the Basque language», *Language Problems and Language Planning* 31 (2): 143-168.

JAUREGI, Oroitz eta URRETA, Irati (2023). «Variación en la norma estándar: el caso del euskera hablado», *Loquens* 10 (1-2): 1-10. https://doi.org/10.3989/loquens.2023.097. (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

LODGE, R. Anthony (1993). *French, from dialect to standard*. Routledge.

MILROY, James eta MILROY, Lesley (1999 [1985]). *Authority in language: Investigating standard English*. Routledge.

MITXELENA, Koldo (1968). «Ortografia», *Euskera* 13: 203-219. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0000.pdf. (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

MORENO CABRERA, Juan Carlos (2009). «Prejuicios sobre el euskera», *Nabarralde*. https://nabarralde.eus/es/juan-carlos-moreno-cabrera-prejuicios-sobre-el-euskera/ (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1994). «Ahoskera araupetzeaz II», *Euskera* 39 (2): 1589-1605.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1998). «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena». *Euskera* 43 (2), 379-388.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2016). «Standardisation of Basque: From grammar (1968) to pronunciation (1998)», *Sociolinguistica: International Yearbook of European Sociolinguistics* 30 (1): 125-143.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (2017). «The standardisation of pronunciation: Basque today, between maintenance and variation», *in* Ingrid Tieken-Boon van Ostade eta Carol Percy (arg.), *Prescription and tradition in language. Establishing standards across time and space*. Multilingual Matters.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz eta SALABERRIA, Jasone (2015). «Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du)», *Euskera* 60 (2): 499-531.

O'ROURKE, Bernadette (2017). «Negotiating the standard in contemporary Galicia», *in* Pia Lane, James Costa eta Haley De Korne (arg.), *Standardizing minority languages. Competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery*. Routledge. https://doi.org/10.4324/9781315647722 (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

PENNY, Ralph (2004). *Variation and change in Spanish*. Cambridge University Press.

RAMALLO, Fernando eta REI-DOVAL, Gabriel (2015). «The standardization of Galician», *Sociolinguistica: International Yearbook of European Sociolinguistics* 29 (1): 61-82. https://doi.org/10.1515/soci-2015-0006

RINDAL, Ulrikke (2013). *Meaning in English: L2 attitudes, choices and pronunciation in Norway*. Doktore-tesia, Osloko Unibertsitatea. DUO gordailu instituzionala. https://www.duo.uio.no/handle/10852/65151. (2026ko ekainaren 2an kontsultatua).

THOMAS, Jenelle (2010). *That ain't right!: Language standardization and prescription in French, Spanish, and English*. American University Digital Research Archive. https://paperzz.com/doc/8800960/that-ain-t-right---language-standardization-and-prescript (2025eko urriaren 9an kontsultatua).

URRETA, Irati (2020). «Euskararen ahoskera hizkera-maila ezberdinetan: aldagarritasuna aztertzen», *Euskera* 65 (2): 625-657. https://doi.org/10.59866/eia.v2i65.40

URRETA, Irati (2022). «Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak: Fonologia Naturaletik hurbilpen bat», *in* Alazne Arriortua, Aitor Lizardi, Sergio Monforte eta Laura Vela-Plo (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan*. UEU.

URRETA, Irati (2025a). *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen*. Doktoretesi argitaragabea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

URRETA, Irati (2025b). «Hizkera-mailaren araberako ahoskera aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai», *Fontes Linguae Vasconum* 140: 451-478. https://doi.org/10.35462/flv140.8

URRETA, Irati (inprimategian). «Idatziaren eragina ahoskeran: hizkera-mailaren araberako aldakortasuna euskaran». *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*.

VALVERDÚ, Francesc (1986). «Sobre el estándar oral catalán: el modelo de lengua en TV3», *Euskera* 31 (2): 317-326.

VILLASANTE, Luis (1994). «Euskara batuaren filosofiaz», *Euskera* 39 (3): 647-673.

WOOLLHISER, Curt (2011). «Border effects in European dialect continua: dialect divergence and convergence», *in* Bernd Kortmann eta Johan van der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Mouton de Gruyter. https://doi.org/10.1515/9783110220261.501

ZUAZO, Koldo (2006 [2005]). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Elkar.

ZUAZO, Koldo (2008). «Euskara normaltzeko bideak», *Euskalgintza* XXI. *mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra*. Euskaltzaindia.

ZUAZO, Koldo (2014). *Euskalkiak*. Elkar.